# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoak 26**

**Vitoria-Gasteiz, 26 de marzo de 2019**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@ej-gv.es

**Lehendakaritza**

**EUSKO JAURLARITZAK EUSKADIREN ETA NAZIOARTEKO BAZKIDE ESTRATEGIKOEN SAREAREN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATUKO DU**

- **Gobernu Kontseiluak onartu duen dekretu baten bitartez, euskal eragileen eta Bazkide Estrategikoen Sarearen barruan dauden eskualdeetakoen arteko lankidetzarako proiektuak abian jarri ahal izango dira**

Eusko Jaurlaritzak gaur onartutako dekretu baten bidez, Euskadiko erakundeen eta Jaurlaritzak berak sektore anitzeko Lankidetza Akordioak izenpetu dituen eskualde estrategikoetako erakundeen arteko lankidetza-proiektuak bultzatzeko eta sustatzeko laguntzak finkatzen eta arautzen dira.

Dekretuak —Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik kudeatuko da— 2018an onartutako Kanpo Harremanetako Plana garatzen du. Plan horren helburuetako bat da aldebiko harremanak sendotzea eta Euskadirentzako estrategikotzat jotzen diren kanpoko eskualde batzuekin itun eta lankidetza berriak finkatzea. Orain arte, Eusko Jaurlaritzak ondorengo eskualde hauek sinatu ditu hainbat akordio eta memorandum: Jiangsu (Txina), Bavaria (Alemania), Flandria (Belgika), Querétaro (Mexiko), Cundinamarca (Kolonbia), Quebec (Kanada), Gales (Erresuma Batua) eta Akitania Berria (Frantzia). Atzerrian euskal interesen zati handi bat biltzen duten eta lehentasunezko arreta jasotzen ari diren lurraldeak dira —Euskadi nazioartekotzeko, esparru geografiko estrategikotzat jotzen dira—. Horregatik, Idazkaritzak gobernu horiekin erakunde-mailako harremanak sendotzeko ahalegin bereziak egiten ditu, atzerrian Euskadiren sektore anitzeko errealitatea eta esparru askotan garrantzi globaleko gaietan duen jarrera erakusteko.

Hain zuzen ere, eta Bazkide Estrategikoen Sare hau indartzeko asmoz, dekretu berriaren bitartez, estatuz azpiko gobernu horiekin lotura sendoak finkatzen lagundu nahi da ondorengo helburu hauek lortzeko: atzerrian aukerak identifikatzen lagunduko duten nazioartekotzeko ekimenak gauzatzeko; eskualde diferentetako eragileengana hurbiltzeko; ideiak bateratzen laguntzeko; eta helburu komunak lortzeko lankidetza estrategikoa indartzeko.

Horretarako, helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan duten eta aldebiko lankidetzako edo jarduerako proiektu bat aurkezten duten pertsona juridiko pribatuei zuzendutako diru-laguntza lerro bat finkatzen eta erregulatzen da —dagokion deialdiaren esparruan—. Laguntza jasotzeko, gainera, proiektu horretan atzerriko eskualde estrategikoetako bazkide batek hartu behar du parte.

Dekretu berri honetan hasieran aurreikusitako diruz lagundu daitezkeen aldebiko lankidetza-proiektuen gaiak honako hauek dira: merkataritza; inbertsioak eta negozio-aukerak; ikerketa, garapena eta berrikuntza; industria-

politika; politika fiskala; mugikortasuna eta garraioa; lan-merkatua eta politika ekonomikoa; ingurumena eta energia; nekazaritza eta elikadura; osasuna; hezkuntza eta lanbide-heziketa; kultura; turismoa; eta polizien arteko lankidetza.

Laguntzak erabiliko dira burutu beharreko aldebiko proiektuaren gastuak eta proiektua bera ezagutzera ematearekin lotutako gastuak ordaintzeko.

Ondorengo kontzeptu hauek diruz lagundu ahal izango dira:

**a)** Diruz lagundu daitezkeen proiektuen arabera, eskualde estrategikoetara joaten diren EAEko pertsonen bidaia- eta ostatu-gastuak, egun bakoitzeko kopurua eta deialdi bakoitzean finkatzen den gehieneko egun kopurua mugatuta.

**b)** Egindako aldebiko proiektuak gauzatzeko, sustatzeko eta ezagutzera emateko gastuak, deialdi-ebazpen bakoitzean finkatzen den gehieneko kopuruarekin.

Laguntzen gehieneko zenbatekoak ezingo du eskaera egiten duen erakundearentzako proiektuak izango duen kostuaren % 50 baino handiagoa izan.

**Gobernantza Publiko eta Autogobernu**

## EUSKO JAURLARITZAK EGUNERATU EGIN DU EUSKAL SEKTORE PUBLIKO OSOKO ARDURA POLITIKOA DUTEN KARGUDUNEN ZERRENDA

- **Katalogoa, Gobernuaren konpromisoa da, herritarrek erantzukizun publikoa dutenen lanpostuei buruzko informazio guztia izateko eskubidearekin, gardentasun osoarekin eta publizitate aktiboarekin**

- **Dagoeneko, Katalogoa, herritarren esku dago web-orrialdean, baina, gainera, eguneratzea EHAAn argitaratuko da**

Gobernu Kontseiluak, gaur, *"Euskal Autonomia Erkidegoko Kargu Publiko Postuen Katalogo Eguneratua onartzen duen Dekretua"* onetsi du. Horrela, Eusko Jaurlaritzak, *azaroaren 15eko 156/2016 Dekretua* betetzen du; dekretu horren bidez ebazten da Gobernuak onetsi egingo duela urtero katalogoa eguneratzea, urteko lehen hiruhilekoan zehar, eta *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, EHAA*n, argitaratuko dela.

Katalogoa eguneratzearekin batera Eusko Jaurlaritzak herritar guztientzat eskuragarri jartzen du web-orrialde ofizialean erantzukizun publikoko karguak betetzen dituzten pertsonei buruzko informazio guztia izateko eskubidearekin, gardentasun osoarekin eta publizitate aktiboarekin duen konpromisoa betetzeko, Gobernua bera sortzeko dekretuan *-azaroaren 18ko 216/2014 Dekretuan-* ezartzen den bezala.

*"Euskal Autonomia Erkidegoko Kargu Publiko Postuen Katalogo Eguneratua onartzen duen Dekretua"k* "*Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publiko*"ko kargu publikoen eta behin-behineko karguen postu guztiak jaso ditu, bai eta Eusko Legebiltzarrak onetsitako "*ekainaren 26ko 1/2014 Legearen (Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituena) 2.1.e) artikuluan jaso diren organo eta erakunde*"etako kargu publikoen eta behin-behineko langileen postu guztiak ere.

**Gobernantza Publiko eta Autogobernu**

## GOBERNUAK EH-BILDURI OHARTARAZI DIO EUSKADIRA INBERTSIOAK ERAKARTZEKO LAGUNTZA PUBLIKOAK OSO TASATUTA ETA MUGATUTA DAUDELA EUROPAR BATASUNAREN ALDETIK

- **Ekimenaren kontrako irizpena eman du; izan ere, gainera, Eusko Jaurlaritza lege-proiektua prestatzen ari da eta, bertan, Legebiltzarreko taldeak proposatzen dituen gai nagusiak aztertuko dira, besteak beste, enpresa-deslokalizazioagatiko laguntzak bueltatzea**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Euskal Ganberak *Enpresen deslokalizazioari aurre egiteko neurriei buruzko EH-Bilduren lege-proposamena* kontuan hartzearen aurkako irizpena eman du.

Lehenengo eta behin, Eusko Jaurlaritzak EH-Bilduri gogorarazi dio Eusko Jaurlaritza, dagoeneko, *Dirulaguntzen erregimena arautzeko lege-proiektua* prestatzen ari dela, *XI. Legegintzaldi honen Legegintza Programan* jaso den bezala. Araudi berri horrek Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzako jarduera oro berrantolatuko du eta, zehazki, enpresa-deslokalizazioagatiko laguntzen itzulerari helduko dio.

Hori horrela, Eusko Jaurlaritzak proposamena egin duen Legebiltzarreko taldea ohartarazi du Europako erregelamenduan inbertsioak erakartzeko pizgarri publikoak estatu eta eskualdeen artean laguntzen inflaziorik ez egoteko antolatuta eta araututa daudela. Muga zehatzak daude, eta erregelamenduaren esparrua gaindituz gero, euskal enpresek inguruko enpresek baino baldintza lehiakor kaskarragoak izango lituzkete.

Gainera, kontuan izan behar da bizi dugun errealitatea: mundu globalizatuan bizi gara eta, bertan, enpresek, lehiakorrak izateko, berritzaileak izan behar dute eta etengabe bilakatzen ari den ingurunera egokitu, eta merkatu irekiak, etengabe berrikuntza-prozesuan dauden teknologiak eta logistika eta lehia bizia izan behar dituzte. Euskadiko eta eskualdeetako enpresak, lehiakorrak izateko, mugaz haraindiko inbertsio gurutzatuetara, jabetza eta eginkizunen lokalizazio-aldaketetara eta informazioaren teknologien erabilerara ere egokitu behar dira, horiek guztiak globalizazioaren parte dira eta. Jarduera, jasangarria izango da, egokitzapen-prozesu horretan duen arrakastaren arabera.

## Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

### EUSKO JAURLARITZA AURTEN ERE 'PLANETAREN ORDUA'RI ATXIKI ZAIO

Gobernu Kontseiluak, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak proposatuta, **Planetaren Ordua** izeneko nazioarteko ekimenari atxikitzea erabaki du; ekimenaren helburua da herritarrak klima-aldaketaren ondorioen eta biodibertsitatearen galeraren gainean sentsibilizatzea. Hori dela eta, datorren larunbatean, martxoaren 30ean, 20:30aren eta 21:30aren bitartean, Lakuako (Vitoria-Gasteiz), Kale Nagusiko 85. zenbakiko (Bilbo) eta Andia kaleko (Donostia / San Sebastián) eraikin nagusietako kanpoko argiak itzaliko ditu. Halaber, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren mendeko bulegoak atxikiko zaizkio ekimenari, besteak beste, Ihobe - Ingurumen Kudeaketaren Sozietate Publikoa, Bilbon, eta Ekoetxea Urdaibai ingurumen-interpretazioko zentroa, Busturian (Bizkaia).

'Planetaren Ordua' ekimena WWF elkarteak (Naturarako Mundu Funtsa) antolatzen du; Sidneyn (Australia) hasi zen, eta mundu osoan zehar zabaldu da eta, horrela, mundu-mailako ingurumen-mugimendu nagusienetakoa bilakatu da.

Egun arte, Estatu osoko 220 udalek, 110 enpresak eta 100 erakundek baino gehiagok egin dute bat ekimen horrekin, eta beren monumentu eta eraikin nagusiak itzaliko dituzte, klima-aldaketaren aurkako borrokaren sinbolo gisa. Gainera, hilaren 30ean, milioika pertsonak bat egingo dute berriro naturaren kontserbazioarekin duten konpromisoa erakusteko, sekula ez bezalako narriatze-prozedura bizi baitu.

Planetan Ordua ekimena sozietate zibiletik sortu da, eta, horrelako ekimenen bidez, ingurumen-erronkek zabalkunde handiagoa dute eta herritarrek aktiboki hartzen dute parte beraiengan zuzenean eragina duten gaietan. Eusko Jaurlaritzak, ekonomia lehiakorra eta karbono gutxikoa sustatzeko duen ingurumen-konpromisoan oinarrituta, aurten ere mugimendu hori bultzatzearen aldeko apustua egiten du; hori dela eta, ez du zalantzarik izan ekimenari atxikitzeko orduan.

## Hezkuntza

### 500.000 EURO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN ELKARTEENTZAKO ETA UNIBERTSITATEZ BESTEKO IKASTETXEETAKO IKASLEEN GURASO-ELKARTEENTZAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du Helduen Hezkuntzako ikasleen elkarteentzako eta unibertsitateaz kanpoko –alde batera utzita Haur Hezkuntzako lehenengo zikloak-irakaskuntzako ikastetxeetako ikasleen guraso elkarteentzako diru-laguntzak deitzen dituen Agindu bat. Deialdi honek 500.000 euroko diru-kopurua du.

Diru-laguntza hauek, 2019an zehar burututako jarduerek eragindako gastuetan laguntzeko eskainiko dira. Honako hauek izan daitezke:

- Unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleei eta ikasleen gurasoei zuzendutako prestakuntza-jarduerek eragindako gastuetarako.

- Jarduerek eragindako gastuetarako eta deialdi honen onuradun diren elkarteek beren jardunerako behar dituzten azpiegitura-gastuetarako.

- Eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien gastuetarako –aurrez aipatutakoez bestelakoak–; jarduera horiek unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleei eta ikasleen gurasoei zuzenduta daude. Jarduera horien kostuaren % 50 ordainduko da gehienez ere.

**Segurtasuna**

**SEGURTASUN SAILAK 700ERA IGO DU ERTZAINTZAREN 28. PROMOZIOAN BETE BEHARREKO LANPOSTU-KOPURUA**

- **Elkarrizketak egitea falta denean, 876 pertsonak gainditu dute orain arte hautaketa-prozesua, eta horietatik 635 gizonezkoak dira eta 241 emakumezkoak**

Segurtasuneko sailburu Estefanía Beltran de Herediak gaur jakinarazi dio Gobernu Kontseiluari Ertzaintzaren 28. Promozioaren hautaketa, prestakuntza eta sarbide prozesuan bete beharreko lanpostu-kopurua 700era igotzea erabaki dela. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari Malentxo Arruabarrenak emango du beste 200 lanpostu gehitzeko ebazpena. Deialdian bertan dago jasota aukera hori, eta Ertzaintzan izandako bajei eta erretiroei aurre egiteko da.

2018ko abenduan argitaratu zen EHAAn Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa-prozeduraren deialdia. Deialdian, 500 lanpostu eskaini ziren, eta guztiek 1. hizkuntza-eskakizuna zuten ezarrita.

Era berean, ebazpen horretan jaso zen deitutako plaza-kopurua handitzeko aukera, “*betiere hautaketa-prozesu hau gauzatu bitartean edozein arrazoi dela bide sortzen diren plaza hutsen arabera*”. Lanpostu-gehikuntza hori ere deialdiko oinarriek arautuko dute, eta behin-behineko zerrendak argitaratu aurretik egin beharko da.

Segurtasun Sailak 2018an izandako bajei eta erretiroei buruzko datuak (guztira 486) eta datu horiek 2019ko lehenengo hiru hilabeteetan izandako bilakaerari buruzkoak (114 izan dira) ikusita hartu du erabakia.

Ez da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak oposizio-fasean Ertzaintzaren deialdi bateko lanpostu-kopurua handitzen duen lehenengo aldia, berez promozio batean baino gehiagotan gertatu da. 26. Promoziorako deialdian 250etik 300era igo zen plaza-kopurua eta 27. Promozioan 300etik 380ra.

*“Gure helburua belaunaldiak antolatuta eta programatuta berritzea da, eta horregatik dugu hartuta Ertzaintzarako agenteen deialdia urtero egiteko konpromisoa. Deialdiko plaza-kopurua premien eta aukeren arabera joan da igotzen”* adierazi du Segurtasuneko sailburu Estefanía Beltrán de Herediak.

Berez 1993ko deialdira arte egin behar da atzera orain deitutakoa baino plaza-kopuru handiagoa (700) eskaini zuen deialdi bat aurkitzeko. Urte hartan batera egin zen 13. eta 14. promozioen hautaketa, eta guztira 600 plaza eskaini ziren eta azkenean 1.200era iritsi ziren.

Oraingo promozioan, eta Bilbao Exhibition Centerren joan den otsailaren 23an hasi ziren probak egin ondoren, guztira 876 pertsonak gainditu dituzte hautaketa-prozesuan orain arte egindako probak. Hautaketa-prozesuan jarraitzen duten 876 pertsona horietatik 635 gizonezkoak dira eta 241 emakumezkoak (% 27,5).

Aurreikusten da izangaiek irailaren hasieran hasi ahal izatea formakuntza-aldia Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian.

**Eguneratzea eta birziklatzea**

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia bere aldirik gorenean dago Ertzaintzako promozio berrien eta udaltzainak hautatzeko eta prestatzeko kudeaketa-aginduak izenpetu dituzten Euskadiko udalerrietako udaltzaingoetako agenteen prestakuntzan.

Era horretara, datorren udazkenean, 700 ertzain-izangaiei batuko zaizkie hirugarren deialdi bateratuan udalek aurkeztutako premiei erantzuteko udaltzaingoetarako beste 260 izangai.

Bestalde, Arkauteko Akademiak jarraitu egingo du kategoriaz igotzeko eta eguneratzeko ikastaroak barne hartzen dituen formakuntza-planarekin, bai Ertzaintza osoari zuzenduta bai beste lurralde eta tokiko erakunde batzuetako eta Euskadiko segurtasun publikoaren sistema osatzen duten organismoetako pertsonalari zuzenduta.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak Euskadiko segurtasun publikoaren zerbitzura jarritako formakuntza-jarduera bizi horrek eskatzen du, batetik, aldaketak egitea Akademiaren baliabide propioen kudeaketan, eta, bestetik, Akademiaren beste baliabide propio batzuk eta besteren baliabideak osagarri moduan erabiltzeko proposamena egitea, tartean diren erakunde guztien erantzukidetasuna eskatuz.

## Lana eta Justizia

### GOBERNU KONTSEILUAK 2020RAKO LANEKO JAIEGUNEN EGUTEGIA ONETSI DU

Gobernu Kontseiluak datorren urterako Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko Jaiegunen Egutegi Ofiziala onetsi du.

2020an, urte osoko igandeak eta aipatzen diren egunak baliogabetzat hartuko dira lan-ondorioetarako, ordaindu egingo dira eta ez dira berreskuratu beharko:

Urtarrilaren 1a, Urteberri-eguna.
Urtarrilaren 6a, Errege-eguna.
Martxoaren 19a, San Jose.
Apirilaren 9a, Ostegun santua.
Apirilaren 10a, Ostiral santua.
Apirilaren 13a, Pazko-astelehena.
Maiatzaren 1a, Lanaren jaieguna.
Uztailaren 25a, Santiago apostolua.
Abuztuaren 15a, Andra Mari eguna.
Urriaren 12a, Espainiako jai nazionala.
Abenduaren 8a, Sortzez Garbiaren eguna.
Abenduaren 25a, Eguberri eguna.

Lan-ondorioetarako, tokian tokiko jaietako bi egun ere izango dira jaiegun, hau da, ordaindu egingo dira eta ez dira berreskuratu beharko; horiek Lan eta Justizia Saileko lurralde-ordezkariek ezarriko dituzte, dagozkien udaletako osoko bilkurek proposatuta, eta komunak izan ahalko dira ala ez lurralde historiko bakoitzeko udal-mugarteetan.

Udalek beren proposamenak egin eta dagokiEn lurralde-ordezkaritzara bidali beharko dituzte, hilabeteko epean, gaur Gobernu Kontseiluak onetsitako Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren AldizkariAn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

## Presidencia

### EL GOBIERNO VASCO IMPULSARÁ LA COLABORACIÓN ENTRE EUSKADI Y LA RED DE SOCIOS ESTRATÉGICOS DEL EXTERIOR

- **El Consejo de Gobierno ha aprobado un decreto que permitirá poner en marcha proyectos de colaboración entre agentes vascos y los de las regiones que forman parte de su Red de Socios Estratégicos**

El Gobierno Vasco ha dado hoy luz verde a un decreto por el que se establecen y regulan ayudas orientadas al impulso y fomento de proyectos de colaboración entre entidades de Euskadi y de las regiones estratégicas con las que el Ejecutivo ha suscrito Acuerdos de Colaboración multisectoriales.

El Decreto -que se gestionará desde la Secretaría General de Acción Exterior- viene a desarrollar el Plan de Acción Exterior aprobado en 2018, que recoge entre sus objetivos intensificar las relaciones bilaterales y establecer nuevas alianzas y colaboraciones con otras regiones del exterior consideradas estratégicas para Euskadi. Hasta el momento, el Ejecutivo vasco ha suscrito distintos acuerdos y memorandos con Jiangsu (China), Baviera (Alemania), Flandes (Bélgica), Querétaro (México), Cundinamarca (Colombia), Quebec (Canadá), Gales (Reino Unido) y Nueva Aquitania (Francia). Se trata de un conjunto de territorios considerados como ámbitos geográficos estratégicos para la internacionalización de Euskadi, que concitan una parte sustancial de los intereses vascos en el exterior, y que están siendo objeto de atención prioritaria. Por ello la Secretaría aúna esfuerzos de cara a intensificar sus relaciones institucionales con estos gobiernos para proyectar la realidad multisectorial de Euskadi en el exterior y su posicionamiento en cuestiones de relevancia global en múltiples ámbitos.

Precisamente y de cara a consolidar esta Red de Socios Estratégicos, el nuevo decreto pretende facilitar el establecimiento de vínculos sólidos con estos gobiernos subestatales, de forma que se puedan llevar a cabo iniciativas de internacionalización, que permitan identificar oportunidades en el exterior; aproximar a los agentes de las diferentes regiones; facilitar la puesta en común de ideas; y potenciar la colaboración estratégica para alcanzar metas comunes.

Para ello, se establece y regula una línea de subvenciones dirigida a personas jurídicas privadas, con domicilio en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que presenten un proyecto de actividad o de colaboración bilateral, en el marco de la correspondiente convocatoria, y que cuenten con la participación de un socio de las regiones estratégicas en el exterior.

Las materias de los proyectos de colaboración bilateral subvencionables inicialmente previstas en este nuevo decreto son: el comercio; las inversiones y oportunidades de negocio; la investigación desarrollo e innovación; la política industrial; la política fiscal; la movilidad y el transporte; el mercado laboral y la

política económica; el medio ambiente y la energía; la agricultura y la alimentación; la salud; la educación y la formación profesional; la cultura; el turismo; y la cooperación policial.

Las ayudas estarán encaminadas a sufragar gastos del proyecto bilateral a llevar a cabo, así como gastos relacionados con su difusión.

Podrán ser subvencionables los siguientes conceptos:

**a)** Gastos de viaje y estancia de las personas de la CAPV que, en virtud de los proyectos subvencionables, se desplacen a las regiones estratégicas, con el límite de cuantía diaria y del número de días máximos que se establezca para cada convocatoria.

**b)** Gastos para la ejecución, promoción y difusión de los proyectos bilaterales realizados con el máximo que se establezca en cada resolución de convocatoria.

El importe máximo de las ayudas no podrá alcanzar más del 50% del coste del proyecto para la entidad solicitante.

**Gobernanza Pública y Autogobierno**

## EL GOBIERNO ACTUALIZA EL LISTADO DE CARGOS CON RESPONSABILIDAD PÚBLICA DE TODO EL SECTOR AUTONÓMICO VASCO

- **El catálogo es parte del compromiso del Gobierno con la máxima transparencia, la publicidad activa y el derecho de la ciudadanía a disponer de toda la información sobre los puestos de trabajo de quienes tienen responsabilidad pública**
- **Está, ya, a disposición de la ciudadanía en la página web, pero, además, su actualización se publicará en el BOPV**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el "*Decreto por el que se aprueba el Catálogo Actualizado de Puestos de Cargos Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco*". El Gobierno Vasco cumple así, con el *Decreto 156/2016 de 15 de noviembre* que dispone que el Gobierno aprobará su actualización anualmente y dentro del primer trimestre del año, procediendo a su publicación en el *Boletín Oficial del País Vasco*, BOPV.

Además de actualizarlo, el Gobierno Vasco lo pone a disposición de toda la ciudadanía en la página web oficial, como parte del compromiso con la máxima transparencia, la publicidad activa y el derecho de la ciudadanía a disponer de toda la información de las personas que ocupan cargos con responsabilidad pública, tal y como se establece en el decreto de creación del propio catálogo -*Decreto 216/2014 de 18 de Noviembre*-.

El "*Decreto por el que se aprueba el Catálogo Actualizado de Puestos de Cargos Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco*" incluye la totalidad de los puestos de personal cargo público y personal eventual del *"Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi"* y de los *"órganos y entidades comprendidos en el artículo 2.1.e), de la Ley 1/2014, de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta y de los Conflictos de intereses de los cargos públicos"* aprobada por el Parlamento Vasco.

**Gobernanza Pública y Autogobierno**

## El GOBIERNO ADVIERTE A EH-BILDU DE QUE LAS AYUDAS PÚBLICAS PARA ATRAER INVERSIONES A EUSKADI ESTÁN MUY TASADAS Y LIMITADAS POR LA UNIÓN EUROPEA

- **Emite criterio desfavorable a su iniciativa porque, además, el Gobierno Vasco está elaborando un Proyecto de Ley en el que se abordarán las principales cuestiones que propone el grupo parlamentario, como el reintegro de las ayudas por causa de deslocalización empresarial**

El Consejo de Gobierno ha emitido, hoy, criterio desfavorable a la toma en consideración, por parte de la Cámara Vasca, de la *Proposición de Ley, de EH-Bildu, sobre medidas para hacer frente a la deslocalización de empresas*.

En primer lugar, el Gobierno Vasco recuerda a EH-Bildu que el Gobierno Vasco está, ya, elaborando un *Proyecto de Ley reguladora del régimen de subvenciones*, tal y como consta en el *Programa Legislativo de esta XI legislatura.* Esta nueva normativa reordenará toda la actividad subvencional del Gobierno Vasco y, en concreto, abordará el reintegro de las ayudas por causa deslocalización empresarial.

En este sentido, el Gobierno Vasco advierte al grupo parlamentario proponente de que en el reglamente europeo, los incentivos públicos para atraer inversiones están ordenados y regulados de tal manera que eviten una inflación de ayudas entre estados y regiones. Hay limitaciones concisas y cualquier superación del marco reglamentario pondría a las empresas vascas en inferioridad de condiciones competitivas con las empresas de su entorno.

Además, hay que tener en cuenta la realidad en la que vivimos: un mundo globalizado en el que, para que las empresas sean competitivas, deben ser innovadoras y adaptarse a un entorno en permanente evolución, con mercados abiertos, logística y tecnologías en constante proceso de innovación y una competencia intensa. Las inversiones cruzadas transfronterizas, los cambios de localización de tareas y propiedad y la utilización de las tecnologías de la información son parte de la globalización a la que las empresas vascas y las regiones, también, deben adaptarse para resultar competitivas. Su actividad solo será sostenible en la medida en la que tengan éxito en este proceso adaptativo.

## Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

### EL GOBIERNO VASCO SE ADHIERE UN AÑO MÁS A LA 'HORA DEL PLANETA'

El Consejo de Gobierno ha decidido, a propuesta del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, adherirse a la iniciativa internacional denominada **La Hora del Planeta,** cuyo propósito es sensibilizar a la población sobre los efectos del cambio climático y la pérdida de la biodiversidad. Con este motivo**,** el próximo sábado, 30 de marzo, entre las 20.30 y las 21.30 horas apagará las luces exteriores de sus principales edificios en Lakua (Vitoria-Gasteiz), Gran Vía 85 (Bilbao) y calle Andia, (Donostia-San Sebastián). También se sumarán a la iniciativa dependencias del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda como Ihobe, Sociedad Pública de Gestión Ambiental, en Bilbao, y el centro de interpretación ambiental Ekoetxea Urdaibai, situado en Busturia (Bizkaia).

La 'Hora del Planeta' es una iniciativa organizada por la Asociación WWF (Fondo Mundial para la Naturaleza) que comenzó en Sidney (Australia) y que se ha extendido a lo largo de todo el mundo convirtiéndose en uno de los mayores movimientos ambientales de alcance global.

Hasta el momento más de 220 ayuntamientos, 110 empresas y 100 organizaciones de todo el Estado se han sumado a esta iniciativa y apagarán sus principales monumentos y edificios como símbolo de la lucha contra el cambio climático. Además, el día 30, millones de personas se unirán una vez más para demostrar su compromiso con la conservación de la naturaleza, sometida a un proceso de degradación sin precedentes.

La puesta en marcha de iniciativas como la Hora del Planeta, surgidas desde la sociedad civil, contribuyen a una mayor difusión de los retos ambientales y a que la ciudadanía tome una parte activa en cuestiones que le afectan de forma directa. El Gobierno vasco desde su compromiso ambiental de impulsar una economía competitiva y baja en carbono, apuesta un año más por apoyar este movimiento, motivo por el que no ha dudado en sumarse al mismo.

**Educación**

**500.000 EUROS PARA ASOCIACIONES DE ALUMNADO DE EPA Y ASOCIACIONES DE MADRES Y PADRES DE CENTROS DOCENTES NO UNIVERSITARIOS**

El Consejo de Gobierno, a propuesta de la consejera de Educación ha aprobado en el día de hoy la Orden por la que se convocan ayudas destinadas a las asociaciones de alumnos y alumnas de Educación de Personas Adultas (EPA) y a las asociaciones de madres y padres de alumnos y alumnas de centros docentes de enseñanza no universitaria, excepto el primer ciclo de Educación Infantil. Esta convocatoria cuenta con un importe global de 500.000 euros.

Estas ayudas se concederán para las siguientes actividades realizadas durante el año 2019:

- Para gastos de actividades de formación, dirigidas tanto al alumnado como a madres y padres de alumnos y alumnas de centros docentes de enseñanza no universitaria.

- Para gastos de actividades y gastos de infraestructura necesarios para el funcionamiento de las asociaciones a las que se dirige la convocatoria.

- Para gastos de actividades complementarias y extraescolares distintas a las anteriormente mencionadas, dirigidas tanto al alumnado como a madres y padres de alumnos y alumnas de centros docentes. Como máximo se sufragará el 50% del coste de estas actividades.

**Seguridad**

## EL DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD AMPLÍA A 700 EL NÚMERO DE PLAZAS A CUBRIR EN LA 28 PROMOCIÓN DE LA ERTZAINTZA

- **A falta de la realización de las entrevistas, 876 personas han aprobado hasta ahora el proceso selectivo, de las cuales 635 son hombres y 241 mujeres**

La Consejera de Seguridad, Estefanía Beltran de Heredia, ha informado hoy al Consejo de Gobierno sobre la decisión de ampliar a 700 el número de plazas a cubrir en el proceso de selección, formación y acceso de la 28 Promoción de la Ertzaintza. La directora de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, Malentxo Arruabarrena, emitirá una resolución para incrementar en 200 el número de plazas, una posibilidad que viene recogida en la propia convocatoria y que persigue hacer frente a las bajas y jubilaciones que se están produciendo en la Ertzaintza.

En diciembre de 2018 salía publicada en el BOPV la convocatoria para llevar a cabo el procedimiento selectivo para ingreso en la Categoría de Agentes de la Escala Básica de la Ertzaintza. El número de plazas convocadas fueron 500, todas ellas con Perfil Lingüístico 1 de la Ertzaintza.

En la resolución se contempla la posibilidad de ampliar el número de plazas convocadas "*en función de las vacantes que se produzcan por cualquier causa durante el desarrollo del presente proceso selectivo*". Dicha ampliación se regirá por las mismas bases de la convocatoria y deberá efectuarse con anterioridad a la publicación provisional de las listas.

El Departamento de Seguridad ha adoptado esta decisión a la vista de los datos de jubilaciones y bajas que se produjeron en 2018, un total de 486, y a la evolución de estos datos que en los tres primeros meses de 2019 han sido 144.

No es la primera vez que la Academia Vasca de Policía y Emergencias amplía las plazas de una convocatoria de la Ertzaintza durante el proceso de oposición, de hecho, esta circunstancia se ha dado ya en promociones anteriores. En la convocatoria para la 26 Promoción se amplió de 250 a 300 y en la 27 Promoción se pasó de 300 a 380 plazas

*"Nuestro objetivo es acometer una renovación generacional organizada y programada en el tiempo y, de ahí nuestro compromiso de ir sacando cada año una convocatoria para agentes de la Ertzaintza cuyo número de plazas ha ido incrementándose en función de las necesidades y de las posibilidades*", ha indicado la consejera de Seguridad, Estefanía Beltrán de Heredia.

Hay que retrotraerse hasta la convocatoria de 1993 para encontrar promociones que superen las 700 plazas que ahora se convocan. En aquella ocasión se hizo una selección conjunta de la 13 y 14 Promoción y se convocaron 600 plazas, que finalmente fueron ampliadas a 1.200 plazas.

En la promoción actual, tras la realización de las pruebas que comenzaron en el Bilbao Exhibition Center el pasado 23 de febrero, un total de 876 personas han superado las pruebas del proceso selectivo llevadas a cabo hasta el momento. De las 876 personas que siguen en el proceso selectivo, 635 son hombres y 241 mujeres (27,5%).

La previsión es que las personas seleccionadas puedan iniciar el periodo de formación en la Academia Vasca de Policía y Emergencias a principios de septiembre.

**Actualización y reciclaje**

La Academia Vasca de Policía y Emergencias está en pleno apogeo con la formación de las nuevas promociones de la Ertzaintza y también de las policías locales de aquellos municipios vascos que han suscrito el convenio de encomienda para la ejecución de los procesos de selección y formación de su personal policial.

De esta manera, el próximo otoño, a la incorporación de las 700 personas aspirantes a ertzainas se le sumarán no menos de 260 aspirantes a policías locales para cubrir las necesidades planteadas por los ayuntamientos en la tercera convocatoria unificada.

Asimismo, la Academia de Arkaute continúa con su plan de formación que incluye tanto cursos de ascenso como de actualización para el conjunto de la Ertzaintza, así como para el personal de otras entidades territoriales y locales, así como de organismos que pertenecen al sistema vasco de seguridad pública de Euskadi.

Toda esta intensidad formativa de la Academia Vasca de Policía y Emergencias al servicio de la seguridad pública de Euskadi conlleva un cambio en la gestión de los recursos propios de la Academia, así como la necesidad de plantearse un uso complementario de otros recursos propios y ajenos apelando a la corresponsabilidad del conjunto de instituciones implicadas.

## Trabajo y Justicia

### EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA EL CALENDARIO DE FIESTAS LABORALES PARA 2020

El Consejo de Gobierno ha aprobado el Calendario Oficial de Fiestas Laborales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el próximo año.

En 2020 tendrán la consideración de días inhábiles a efectos laborales, retribuidos y no recuperables, todos los domingos del año y las festividades de:

1 de enero, Año Nuevo.
6 de enero, Día de Reyes.
19 de marzo, San José.
9 de abril, Jueves Santo.
10 de abril, Viernes Santo.
13 de abril, Lunes de Pascua de Resurrección.
1 de mayo, Fiesta del Trabajo.
25 de julio, Santiago Apóstol.
15 de agosto, Asunción de la Virgen.
12 de octubre, Fiesta Nacional.
8 de diciembre, Día de la Inmaculada Concepción.
25 de diciembre, Natividad del Señor.

Serán también inhábiles para el trabajo, retribuidos y no recuperables, otros dos días con carácter de fiestas locales, que se establecerán por los Delegados Territoriales del Departamento de Trabajo y Justicia, a propuesta del Pleno de los Ayuntamientos respectivos, pudiendo ser comunes o no en los diversos términos municipales de cada Territorio Histórico.

Los Ayuntamientos deberán formular sus propuestas y remitirlas a la respectiva Delegación Territorial en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la fecha de la publicación, en el Boletín Oficial del País Vasco, del Decreto aprobado hoy por el Consejo de Gobierno.